

Di, Botanika - atzizti?

Galdera onekin berarekin, orain illabete batzuek, banatu nituan zuen artean, zenbait orri, al zuanak al zuan saio-egin zezala eskatuaz, *-di*-bukaeradun itzik geienak biltzeko.

Biltze ori zertarako zan, galdeak berak zion: auxe jakiteko: ea *-di*-dun itz guztiak botanika-itzak diran, ala ez: *Elordi*, ta *Zumardi*, ta *Arantzadi*, ta *Zugasti*, ta *Intxausti* ta bezela...

GAUZAREN GARRANTZI...

Iñori bada-ta, euskaltzañoi dagokigu, gauza au bear bezela jakitea. Ba'dakizute, gure Bazkun onen izena, *-di*-atzizkiduna dala: *Euskaltzain-di*; olaxe asiera-asieratik, 1918'gn. urtetik bertatik. (Laister bait-ditugu gauzaren «urrezko eztaiak»). Eta esan izan da, izen orretan *-di* oker dago-la; *-di* ori, landare-itzak bakarrak erabiltzen dala... eta euskaltzañak (gu alegia) ez gerala landare...

Gu-geuron artean ere izan da, «Euskaltzaindiaren» izena gaizki eratu dala esan duanik. «Zeruko Argian» ere, sortu-berri zanean, izan zan norbait, Asteoroko ortan orren antzeko zerbait esan zuanik.

Orain, bada: egia al-da, *-di*-atzizkia, «landare-atzizkia» dana? beti landareekin bakarrak erabilli izan dana? Ez al-da gure Toponimian, *-di*-atzizkidun izenik, landare-izena ez danik?

Orixe zan nere galde aren xede ta elburua: azterketa on bat eratzea gaurko euskaltzañen artean, auzi au bear bezela erabakitzeko: «Euskaltzaindi-izena gaizki al-dago?».

Nere orria jaso zutenen artean, batzuren batzuek erantzun dute:

Garmendia'tar Juan «Zeletak»-eta. Bañan batez ere Satrustegi Jaunak. Lengo Batzarrean entzun zenduten aren txosten bikaña gauza oni buruz. Bañan, bidezko zan bezela, nik ere ba'neukan izen-errenkadatxo bat geraturik, gai ontantxe. Eta izen oietzek ezagunerazi nai dizkitzuet gaur. Izenak irakurri, eta irizpide batzuek ezarri, gauza au bear bezela aztertzeko eta auzia erabakitzeke.

EUSKALTZAINDIAZ BESTE...

Guretzat bezela —euskaltzañontzat bezela— gauza onek ba'du garrantzi, beste asko ta askorentzat ere, bestelako alde batetik: *Euzkadi*-izenaren aldetik, alegia. «Euskaltzaindik» eta «Euzkadik» izaera berdiña bait-dute gai ontan.

Ba'dakizute —guztiok dakizute— Unamuno'k kritika gogorra egin izan ziona bein «Euzkadi» izenari, gaizki eratutako izen bat bait-litzan. Ark ere gauza bera esan zuan: *-di*-atzizkia, botanika-atzizkia dala; eta neurri ortan, Euzkadi'k, ezer bada-ta, «arboleda de vascos» esan naiko zuala, eta ez «País Vasco» edo «País de los vascos». Eta dirudianez, iritzi orri jarraiki zaizkio zenbaitzuek gure artean ere. Bañan, gauza bear bezela aztertu-ta? izen-bilduma on bat egin-da?

HISTORI-APUR...

Aurrera jarraitu baño leenago, Euzkadi-izenaren histori-apur bat emen barritzea, ez deritzot iñori alperrikako izango zaionik.

Izen au, ba'dakizute sabindarrak sortua dana —eskola sabindarrak, alegia— «Euskalerriaren» ordez erabiltzeko, «País Vasco» esan nai danean.

«Euskalerria» izen luzetxoa zeritzoen askori nunbait, eta laburragoko izen berri bat asmatu-naia sortu zan baziarretan... XX Gizaldi onen asierako urteak ziran. «Cuestión foral» zalakoa, txitian-pitian mai-gañera ateratzen zan. Eta olakoetan, itzetik-ortzera erabiltzeko izen labur bat asmatu bearra zegoen iñolaz ere. Eta berealaxe asi ziran ortarako saioak. Eta lenengo-lenengotik, «Euskaria» sortu zan: *Euskaria* edo *Euskeria*. Orduantxe ain zuzen, asi-berriak ziran sabindarren lenengo politika-urratsak. Eta guk geurok gogoan degu nola urte aietan, aldian bein entzuten genduan, zenbait donostiarren aotik, oi u: «Viva Euskeria libre!».

Orra, beraz, saio aietan lenengo-lenengo sortu zan izen berria: «Euskaria» edo «Euskeria». Eta sabindarrak eta sabindar etziranak ere izen au erabiltzen zuten. «Orfeón Euskeria» bat ere sortu zan urte aietan Bilbao'n.

Egia esan, *Euskaria* izen orrek, askorentzat bi gauza esan nai zituan: Izkuntza ta Erria. Itz naastu-antzekoa zan, beraz. Eta, zala orregatik, zala beste arrazoi-bide batzuegatik, sabindarrak orduan beste itz bat, beste izen bat aizatzen asi ziran; obeto esateko izenaren beste forma bat: «Euskadi» edo «Euzkadi», gaur oraindik zenbait zaarren ezpañetan. «Euskari» irauten duana. Aldaketa, itxuraz, etzan aundia: *-ri*-atzizkiaren ordez *-di* ezartzea (Gaurko *Euzkadi*'ren tarteko *-z*- orren kontua, beste kontu bat da, emen ikutzea guri ez dagokiguna).

ITURRIETAN GORA...

Bañan gure arirako, jo dezagun gorago.

Dirudianez, sabindarrak baño urte-mordo bat leenago, izan zan beste norbait ere, «forma-*ri*»ren ordez, «forma-*di*» erabilli zuana.

Urte batzuek ba'dira, «Euskal-esnalean»-edo, artikulotxo bat azaldu zala. Basilio Gerra frantziskotarrak idatzia, oker ez bagaude, esanaz, A. Uriarte frantziskotarrak, sabindarrak baño gizaldi-erdi leenago erabilli izan zuala «Euskadia» izena bere lanen batean — Zarauz'ko Konbentuan dagon libururen batean — .

Beraz —berriro ere gure arira etorriaz— ikusten danez, sabindarrentzat ezik, A. Uriarte'rentzat ere *-di*-atzizkia ez da botanikakoa bakarrik; eusko-izenarekin ere erabilli diteke. Euskadi.

NERE IZENDEGIA

Digresio onen ondoren, guazen orain, nik pillatu dizutedan *-di*-bukaeradun izen errenkada ikustera. Berrogeitamar bat dira guzitara, Napparroa'ko, Araba'ko, Bizkaya'ko ta Gipuzkoa'ko Geografian bildutakoak.

Bañan oar batzuek lenengo.

Errenkada ontan, nik botanika-kutsua duten izen guztiak, baztartu egin ditut. Beraz, nik dakartzidan izenak, botanikaz-bestelakoak dira: batzuek garbi-garbi, eta besteak ez ain garbi, bañan ez botanika-kutsu garbidun ere.

Ala berean baztartu ditut baita *-di*'ren aurretik, *-an*-bat daukatenak ere, *-di*'rekin baño *-andi*'rekin zer-ikusi geiago ote-duten bildurrez; adibidez, *Erandio*, *Arandia*, *Belandia*, *Barandi* (aran) etab.

-*di*'ren berdin egiten ditut, ordea, -*dio*, ta -*dui* ta -*doi*; adibidez *Zamudio*, *Bustindui* etab.

Bañan -*dio*'ren errenkاداتik kendu bearra dago *Gomendio*, erderazko *Encomienda*'rekin daukan zer-ikusiatatik; eta baita *Rokandio* ere, -*di*'ren aurretik -*an*- daukalako; bañan ez *Zamudio* ta *Gojendio*. Ala berean leku-ematen diet zenbait -*de*'ri, -*di*'ren variante izan ditezkeanez: adibidez *Ozkoide* (*Ozkoidi*), *Markaide* (*Markaidi*?), *Etxaide*? (*Etxaidi*?), *Luzaide* (*Luzaidi*?)..

Atari ta *gazteri*'ren atzizkia -*di* ez ote-dan bildur diranai, iru izen eskeñiko dizkiegu, eredu-bezela, bada-ezpada: *Gortari* Napparroan, *Kortadi* Gipuzkoa'n; *Urkiri* Bizkaya'n, *Urkidi* Gipuzkoa'n; *Gabari* ta *Gabadi* Napparroa'n.

Ona orain nere izen erreskada:

Loidi	Abodi
Bustindui	Zamudio
Arbeldi (var. Alberdi, Albertia)	Alkerdi
Arbildi	Asurdi
Guridi	Ayerdi (ikus Ayertza, Ayartza)
Mikeldi	Bagardi
Gortadi (var. Gortari, Kortadi)	Balardi
Zabaldi (Zabaldika)	Ezkaldi
Goyendi (var. Gojendio)	Berrendi
Kapildui	Txapardia
Barrundia	Txarkadia
Ubarrundia	Txukandia
Orbeldi	Erradi
Lizundia	Intzakardi
Goiri (ikus Goiti)	Jakoizti
Bikendi	Zandi (var. Zandio)
Emaldi (var. Emeraldia)	Lausti
Berridi	Loiti
Gabadi (var. Gabari)	Loizati (var. Loizate)
Ozkoidi (var. Ozkoide)	Ayastui
Laburdi	Oñasti
Anbulodi	Sarduia
Yoldi	Satuya (var. Zatoya, Zatia)
Bedia	Surtadia
Ziordia (var. Zuordia)	Tautadi

Ausidi
 Udi
 Izardio
 Lendia (ikus Lendoño)
 Okaiztia (var. Okoizta, Akosta)
 Undio
 Beldio
 Pikandi
 Aulestia
 Belendia
 Bezaide (ikus Ozkoide, Ozkoidi)
 Mereludi
 Merdelledi
 Trakamaldi
 Urdaide (ikus Ozkoide, Ozkoidi)
 Luzaide (?)
 Etxaide (?)

Ez ditugu izendagi ontan sartzen, landareak ez izan arren, botanika-kutsu zerbait izan dezaketen zenbait itz: adibidez *Txaradi*, *Exaraduya*, *Txarakadia* ta *Berazadi*.

BUKATZEKO...

Egia esan: nere izendegi ontakoak, baño askotaz ere geiago dira gure Toponimian *-di*'dun landare izenak; bañan «geiago» badira ere, ez «guztiak»; saio txiki baten bitartez berrogeitamar izen arkitu ditugu beintzat landareai ez dagozkienak edo gaur Botanikaz expikatzen ez diranak. Eta saio aundiagoko baten bitartez ez jakin zenbat geiago pillatu litezkean.

Orain galdera bat, bukatzeko: ikusten dituzuten oiek ez al-dira nai-koak eta aski, *-di*'atzizkiari botanika bakar kutsua kentzeko?

Andoain'en 1967'gn. Dagonilla'k 25.

Lekuona'tar Manuel'ek.